

CAF ELHUYAR sariak 09

Zientzia-kazetaritzaren arloko lan onena

Unai Brea Gonzalez

Dibulgazio-artikulu orokor onena

Leyre Echeazarra Escudero

Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak

Itziar Tueros Gutierrez

Unai Brea Gonzalez



INIGO IBAÑEZ

Argia aldizkaria irakurtzen dutenek bada- kite maiz zientziaz idazten duzula?

Kimika ikasten hasi nintzen, baina karrera utzi eta kazetari-lanetan hastea erabaki nuen. Harrezkeroztik ia 15 urte daramatzat ofizio horretan. Ez naiz inoiz damutu hartutako erabakiaz, baina zientziarekin harreman zuzena izaten dudan bakoitzean, esaterako, Kutxaespaziora noanean edo dibulgazio-artikulu bat ikusten dudanean, horrelako nostalgia bat ematen dit. Beharbada horregatik, eta oinarritzko terminologia nire lankideek

baino zertxobait gehiago menperatzen dudalako, zientziaz asko idazten dut Argian. Gainera, azken urteotan zientziari buruz idazteko konpromisoa areagotu egin du Argia aldizkariak. Niri tokatu zait, eta atsegin handiz hartu dut lan hori, oso gustura egiten dudalako.

Adimen artifizialari buruzko lan bat aurkeztu duzu sariketara.

Bai, ez da hedabideetan egunero aditzen den gai bat, eta, beraz, pentsatu nuen best

orrialdeko erreportaje batean adimen artifizialaren berri ematea, alegia, horren inguruko ikerketak zertan diren eta abar azaltzea.

Ikertzen hasi ahala, ikusi nuen aditu gutxi batzuk nahiko argudio interesgarriak esaten zutela hemendik ehun urtera makinak gu baino gehiago edo gu baino adimentsuagoak izango direla; une bat iritsiko dela zeinetan makinaren eta gizakiaren arteko diferentzia ez den hain argia izango, hau da, lausoa izango dela; denok makinak izango garela eta abar.

Argitaratzailea:

Elhuyar Fundazioa
Zelai Haundi, 3.
Osinalde industrialdea
20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
tel. 943 36 30 40;
Faxa: 943 36 31 44
www.elhuyar.org

Koordinatzailea:


Eider Carton, e.carton@elhuyar.com

Jatorrizko diseinua eta maketa:


BLANCO soluzio grafikoak

© Elhuyar Fundazioa

Elhuyar Fundazioak gehigarrian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik ez du
derrigor bere gain hartzen.



ANTOLATZAILEAK



ELHUYAR
Fundazioa



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak
diruz lagundutako proiektua

